

ASTEAZKENA

2018/12/19
6. urtea, 977. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Gabonetarako hamaika aukera

Eguberrietarako
egitarauak prestatu
dituzte Tolosa, Alegia eta
Amezketan // **3 eta 7**



JOSEBA URRETABIZKAIA

TOLOSA DENDARIK ZAHARRENA

Tolosako Korreo kaleko Gabirondo zapata dendak 140 urte bete ditu; azken urteetan Maria Isabel eta Maria Izaskun Gabirondo aritu dira bertan lanean, baina apirilean erretiratuko dira; badute erreleboa, dena den // **5**

«Administrazioko lana euskaraz egitea ahalbidetu dezake»

IGOR ELLAKURIA
ITZULPEN TEKNOLOGIAN ADITUA

Elhuyarrek eta Mondragon Linguak Modela tresna sortu dute euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpen automatikoa egin ahalizateko // **4**

Ekainerako izan nahi dute prest, Emakumeen Etxea

Eskualdeko Emakumeen Etxea gorpuzteko lehen fasea ia osatu dute; Tolosako Corazonistak zeudeneko etxe berrien azpian egongo da // **2**

Natura&Art jardunaldiak antolatu dituzte Fagus Alkizan

Hernio-Gazume kontserbazio bereziko eremuaren altxorak ezagutarazteko antolatu dituzte saioak; larunbata bitarte luzatuko dira // **6**

Ataria bertso jaialdia

2019

Maialen Lujanbio Andoni Egaña Amets Arzallus

Oihana Iguaran Nerea Ibarzabal Haritz Mujika

Gai jartzailea
Amaia Agirre

Urtarrilak 19,
larunbata, 19:00etan
Tolosako
Leidor antzokian

Sarrerak Atarikideentzat 10€

Zure sarrerak hartzeko Atariaren bulegora etorri, gehienez bi sarrera bakoitzeko:

Abenduak 17, 18, 19 eta 20an
12:00etatik 19:00etara.

Abenduak 21 eta 27an
09:00etatik 13:00etara.

San Esteban 20, Tolosa

Itzea Urkizu Arsuaga Tolosa

Tolosaldeko Emakumeen Etxea sortzeko parte hartze prozesua lehen harria jartzera doa, lehen fasea ia osatuta. Joan den astean gune zabalaren azken bilkura izan zen eta, bertan, orain arte landutakoa aurkezteaz eta ekarpenak jasotzeaz gain, aurrerantzean egin beharreko lanak ere zerrendatu zituzten: emakumeek ekainerako prest izan nahi dute azken proiektua.

Joan den maiatzean ekin zioten bideari eta, abendura bitarte, hiru gunetan aritu dira lanean: talde eragilean, mahai politiko-teknikoan eta, azkenik, gune zaballean.

Bide horretan guztian, emakumeen etxearen helburuak, erabilerak, ezaugarriak, printzipioak eta filosofia, jarduera motak, kudeaketa eredua nahiz funtzionamenduaren lerro nagusiak marraztu dituzte, eta baita hainbat erabaki hartu ere. Besteak beste, etxea eraldatze sozialerako gunea izatea nahi dute, eta emakumeak ahalduzko espazioa. Jarduerari dagokienez, berriz, emakumeentzako eskaintza osatuko dute eta, egoki denean, gizezkoentzako jarduerak eta jarduera mistoak antolatuko dituzte, betiere, feminismoari lotuta.

Aipatzekoa da, Tolosaldeko Emakumeen Etxea martxan jartzen dutenean, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailaren bulegoa hara lekualdatuko dutela: «Horrek sendotasuna emango dio etxearen proiektuari, eta feminismoari lotutako jario guztia zentralizatzeko aukera bat izango da».

Etxeak har lezakeen izen posi-



Gune zabalaren azken bilera joan den ostegunean izan zen, Tolosako pleno aretoan. TOLOSALDEKO ASANBLADA FEMINISTA

Ekainerako biribildu nahi dute Tolosaldeko Emakumeen Etxea

Etxea Corazonistak zeudeneko etxebizitza berrien azpian gorpuztuko dute; dena den, Tolosako Udalak ez du, oraindik, erabaki zehatzik onartu

blea ere hizpide izan da azken hilabeteotan eta, momentuz, hiru proposamen plazaratu dituzte gune irekian; ez dute erabakirik hartu.

Iritzi eta ikuspegi truke gehien sortu duen gaietako bat Tolosaldeko Emakumeen Etxeko kudeaketarena izan da: talde eragileak erabakigune bat eta koordinazio gune bat bereiztea proposatu

zuen ostegunean, baina, oraindik, mahai politiko-teknikoak ez du egitura hori behin betiko onartu. Halaber, zenbait emakumek iradoki zuten, etxearen funtzionamendua kudeatzeko egozia litzatekeela parte hartze prozesuak berak izan duen dinamika etxera egokitzea. Auzi hori nahiz beste zenbait erabaki biribiltzeko, urtarrila amaieran

elkartuko dira ordezkari politikoak eta teknikariak, eta bilera-tik plangintza zehatzago batekin irtetea da beren nahia.

GOROSABEL ERAIKINAREN ALBOAN

Tolosako Udalak ez ditu, oraindik, parte hartze prozesuan trukatutako ideiak eta proposamenak onartu; Emakumeen Etxeak

hartuko duen espazioa erabat zehazteke dago oraindik. Dena den, garai bateko Corazonisten eliza zegoeneko gunean izango da Tolosaldeko Emakumeen Etxea, musika eskolaren ondoran. Etxebizitza berriak eraiki zituzten bertan, eta azpiko lokaletan ari dira proiektua antolatzen. Olatz Peon alkateak azken gune irekian azaldu zuen oraindik ezin dela jakin aurreko lokala, atzekoa edo biak bideratuko dituzten etxera; horri udal teknikari eta ordezkariak eman beharko diote behin betiko baietza.

Espazio hori guztia Emakumeen Etxeko beharrak antolatzeko bideratuko balute, gune berriak hiru eremu izango litzuke: Rondilla kaletik gertuen dagoen lokala, trenbidearen aldamenean dagoena, eta haren gaineko solairuartea.

IDEIETATIK EKINTZETARA

Lehen fasea amaituta, Tolosaldeko Emakumeen Etxeari teiltua eraikitzen hastea unea iritsi da eta, horrela, joan den osteguneko bilkuran aurrera begirako lanak ere zehaztu zituzten parte hartzaileek.

Batetik, ezinbestekotzat jo zuten, urtarrilean bertan bigarren faseari ekitea eta, horrekin batera, orain arte jorratutako guztia Tolosaldeko udal guztiei jakinaraztea. Bidearen bigarren zatian Elhuyar taldearen laguntza izatea ere oso komenigarritzat jo zuten talde eragileko kideek, izan ere, datorren ekainerako azken proiektua esku artean izatea dute xede.

Idea eta erabakiak erabat itxi, eta ekintzetara pasatzeko momentua da, beraz. Tolosako Udalak jakitera eman du, jada, 2019ko aurrekontuko diru poltsa bat emakumeen etxera bideratuko dutela, eta asmo horren hari-ara aritu zen Olatz Peon alkatea, joan den osteguneko bileran ere: «Dauzkagun baliabideekin abiatuko gara, eta bidean hartu beharko dira zenbait erabaki».

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik. Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

Hodeiertzen Eguberri kontzertua izango da igandean

TOLOSA // Tolosako Hodeiertz abesbatzak urteak daramatza Eguberri kontzertua antolatzen, eta aurtengoa berezia izango da, abesbatzak 35 urteko ibilbidea bete baitu. Horrela, datorren abenduaren 23an, igandearekin, Santa Klara komentuko elizan izango da Hodeiertzen kontzertua, 19:00etan.

Ibaiko zuhaitz lehorrak kenduko dituzte egunotan

TOLOSA // URA agentziak ibaiertzetako zuhaitz lehorrak kenduko ditu, gaurtik ostiralera bitarte, zezen plazaren inguruan. Azaldu dutenez, zenbait adar ibaitik espaloiraino ateratzen dira, eta arriskutsuak dira oinezkoentzat; halaber, ibaian kirola egiten dutenentzat ere arriskutsuak dira.

Gudari kalea inauguratuko dute ostiral iluntzean

TOLOSA // Gudari kaleko eraberritze lanak amaitzeaz aurrera, sei hilabetezko obrak amaitutakoan, irisgarritasun hobea eta erosoagoa izango du kaleak. Udalak ostiralerako antolatu du inaugurazioa, Tolosa&Co elkar-tearekin batera, 20:00etan. Musika, pintxoak eta txokolate beroa eskainiko dituzte.

Gabonen bueltan Tolosako eragileek prestatutako egitaraua aurkeztu dute, elkarrekin, Elosegi parkean; bertan ondu dute, estreinakoz, Olentzeroren basoa, Zumardia elkartekoek.

Aurten, basotik dator Eguberria

Itzea Urkizu Arsuaga

Inoizko Eguberri bukolikoenak izango dira aurten-goak, Tolosan: basoan hasiko dira, eta basotik zabalduko, etxe eta kale artera. Elosegi partean Olentzeroren basoa ezagutzeko aukera izango baitute, astelehenetik aurrera, haur eta gaztetxo tolosarrek. Zumardi elkarteak antolatutako proiektua berrikuntza nabarmenena izan da, baina beste bost eragilek ere beren proposamenen berri eman dute agerraldi batean.

Olatz Peon Tolosako alkateak aurkeztu ditu guztiak, azpimarratuz, Eguberrietan bezala, urte osoan barrena eragile tolosarrek egiten duten lana. Horrela, urte amaierako data bereziei begira jarritz, adin guztietako pertsonen neurriera egindako egitaraua izango dela azaldu du.

Olentzeroren basoak zabalduko du, Eguberri usaina, Tolosara, Elosegi parkeetik. Zumardia elkartearen proiektuak haur eta gaztetxoentzako ibilbideak antolatu ditu, martxan dira datorenen ostiralera bitarte eta, Elosegi parkekoa, Olentzeroren unibertsoan barneratzeko ate bat izango da. Itziar Saenz de Ojerekek azaldu duenez, Zumardia elkarteko kideek espazio perfektu bat ikusi zuten Elosegi parkea, halako jardura bat garatzeko.

Horrela, Juan Kruz Igerabideren Eguberri liburua oinarri hartu dute, Olentzeroren basoko



Etxola, txondorra eta kriseiluak izango dira, besteak beste, Olentzeroren basoko elementuak. I. URKIZU ARSUAGA

ibilbide horiez mamiz janzteko: «Altxor bat da liburua, eta euskal literaturako ahozkitasuna jasotzeko balio izan digu». Bisitak 45 minutukoak izango dira, eta talde txikiak antolatuko dituzte, gida banarekin; taldeak 15 minutu irtengo dira. Basoan barrena, kriseiluak erakutsiko diete bidea bisitariei, eta hainbat pertsonaia irtengo dira Eguberrien bueltako ohitura, tradizio, kantu eta kontu azaltzera.

Euskal mitologiaren uniber-

tsoak bilduko ditu, beraz, Olentzeroren basoko bisitariak eta, horrela, txondorra, Olentzeroren arropa nahiz etxola ezagutu ahal izango dituzte; bukaeran, gutuna etxola barruan uzteko aukera ere izango da, Zumardia elkarteko kideek azaldu dutenez.

Izen-emateak martxan dira, eta 750 pertsonatik gora parte hartzeko zerrenda dira jada. www.zumardia.eus webgunean egin daiteke inskripzioa eta, aipatzekoa da, bisitak iluntzean

Juan Kruz Igerabideren liburua bat oinarri hartu dute, Olentzeroren basoko ibilbideetarako

Topic zentroko haurrentzako tailerra 'stop-motion' erakusketarekin lotutakoa izango da

izango direla, abenduaren 23ra bitarte, 17:30etik 20:00etara. Haur bakoitzarekin, gehienez ere, guraso edo arduradun bakoitzak parte hartu ahal izango du ibilbidean, talde txikien logikari eutsi ahal izateko.

Ibilbide magikoaz gain, Tolosako Eguberria kulturaren bueltan ibiliko da eta, udalak, Tolosa&Co merkatari elkarteak, Tolosako Ekinbide Etxeak eta Gazte Topaguneak hitzordu zerrenda luzea osatu dute elkarlanean.

EGUBERRIETAKO EGITARAUA TOLOSAN

Urtarrilaren 7ra bitarte

11:00–14:00 / 17:00–20:00. Eguberrietako karrusela, Trianguloa plazan.

Abenduaren 22a

18:30. Joyfull Gospel Choir eta txokolate jatea Berdura plazan.

Abenduaren 23a

17:00. Udare erraldoiaren istorio harrigarria filma, Leidor aretoan.

Abenduaren 24a

17:30. Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera, Plaza Zaharretik.

Abenduaren 26a

17:00–20:00. Gazte Topagunean jolas librea.

18:30. Musika eskolako ikasleen kontzertua, Topic zentroko aretoan.

Abenduaren 27a

17:00–20:00. Gazte Topagunean Suffle Just Dance ikastaroa.

Abenduaren 26, 27 eta 28a

11:00–13:30 / 16:00–20:00. Puzgarriak eta haur parkea Zerkausan.

Abenduaren 26, 27 eta 28a

09:30–13:00. 3, 2, 1, grabatzen! tai-

lerra, Topic zentroan, 6 urtetik gorako haurrentzat.

Gure Zirkuko haur tailerrak zezen plazan. Izen-ematea Tolosa&Coren egoitzan.

Abenduaren 28a

11:00. Gazte Topagunetik izotz jauiregira irteera.

17:00. Sun magoa: *Magic spectacular* ikuskizuna, Leidor aretoan.

Abenduaren 29a

17:00. *Animales fantásticos: Los Crimenes de Grindelwald*, Leidorren.

22:30. Rural Zombies taldearen kontzertua Zerkausan.

Abenduaren 30a

16:30–20:30. Topagunean urte amaierako festa.

17:00. *Ralph rompe internet* filma, Leidor aretoan.

Urtarrilaren 2, 3 eta 4a

Gure Zirkuko haur tailerrak zezen plazan.

Urtarrilaren 2a

17:00. *Animales fantásticos: Los Crimenes de Grindelwald*, Leidorren.

Urtarrilaren 3a

17:00. *Killklon: Gurekin etorri nahi?* Antzezlan, Leidor aretoan.

Urtarrilaren 4a

17:00. *Ralph rompe internet* filma, Leidor aretoan.

18:30. *Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?* Ikuskizuna, Topic zentroko aretoan.

Urtarrilaren 5a

18:30. Errege magoen desfilea. Izaskundik jaitsiko dira argiak, etorrera iragarritz, eta ohiko ibilbidea egingo dute gero.



I. LARRAÑAGA

«Modelak jauzi kualitatibo handia suposatu du euskararen itzulpenean»

IGOR ELLAKURIA ITZULPEN TEKNOLOGIAN ADITUA

Modela itzultzaile automatikoa aurkeztu dute hainbat euskal enpresek. Euskararen idatzizko erabilera handitzen eta hizkuntza normalizatzen lagunduko duela uste dute.

Iker Larrañaga Tolosa

Teknologia adimenduna oinarri duen euskara eta gaztelaniaren arteko itzultzaile automatikoa garatu dute hizkuntza teknologian aditu diren zenbait eragilek. Igor Ellakuria Mondragon Linguako itzulpen teknologia-

ko arduraduna proiektuaren parte izan da eta Modela itzultzailearen nondik norakoak argitu ditu. **Noiz abiatu zen proiektua?** Proiektuko partaideek hizkuntza teknologiaren inguruan hainbat urte zeramatzaten iker- tzen. Sare neuronaletan oinarri-

tutako itzultzaile bat garatu nahi genuen, momentu horretan ikerketa munduan lantzen zelako. Eusko Jaurlaritzako SPRI taldeko Elkartek programan aurkeztu genuen, ikerketa proiektuak finantzatzen baititu. Zentro desberdinak batu ginen, ISEA, Vicomtech, Ametzagaña, IXA Taldea eta Elhuyar. Iaz bukatu eta aurreko proiektua gizarteratzeaz arduratu dira Mondragon Lingua eta Elhuyar. **Zergatik sortu duzue Modela? Zer eskaintzen du?** Euskarazko itzultzaile on bat lortzeko erronka betidanik egon da. Modelak jauzi kualitatibo handia suposatu du euskararen itzulpenean, aurretik geneuz-

kan sistemen itzulpenen emaitzak irakurgaitzak zirelako. Irakurtzen zenuenean makina baten lana zela nabaritzen zen, jarioakortasuna ez zen ona, sistema neuronalarekin aldiz, bai, burmuinaren funtzionamendua imitatu nahi dutelako.

Kalitate aldetik hobea.

Eskaintzen dizkiozun datuak sailkatzen ditu eta guk interpretatu egiten ditugu. Oso aberatsa da hitzen arteko erlazioak identifikatzen dituelako.

Ez dator itzultzaile profesionalak ordezkatzera, hala ere.

Eduki gehiago itzuliko da. Modelak eskaintzen dituen itzulpenetan beti dago zerbait zuzentzeko. Itzulpen automatikoak gero eta gehiago erabiltzen dira, eta itzultzaileek beren lana moldatu behar dute itzulpen automatikoek sortutako testuak zuzentzeko. Erakundeetan euskaraz normalizatzeko lagungarria izango dela uste dut. Eskaintzen dituen itzulpenak ulergarriak direnez, administrazioan edota erakundetan, eguneroko lana euskaraz eraman daiteke.

Ikus-entzunezkoei dagokienez zein aurrerapen aurreikusten dituzue?

Arlo horretan hizkuntza teknologia desberdinak erabiltzen dira, hala nola, ahotsaren errekonozimendua, transkripzioa... eta gure asmoa bide horretan eskaintza bat egitea da.

Beste hizkuntzetara itzultzeko asmorik ba al duzue?

Bai, frantsesera eta ingelesera.

Mugikorrerako aplikazio bat sortuko duzuela aipatu zenuen aurkezpenean.

Mugikorrean itzultzaile erabil daiteke webgunera sartuta. Hala ere, etorkizunera begira sortu nahi dugu aplikazio bat.

Hitz kopurua handitzeko asmoa baduzue?

Doako itzultzaileetan nolabait zure datuak eskaintzen dituzu zerbitzuaren truke. Guk konfidentzialtasuna bermatu dugu.

Eskualdeko basoen eta biomasaren inguruan ohartarazi dute

Tolosalde Garatzenek iragarki bat argitaratu du; eskaera handitzeko udalek paper dinamizatzailea izan behar dutela esan du

Erredakzioa Tolosa

Tolosalde Garatzenek iragarki bat argitaratu du eskualdean dagoen biomasa potentzialaren inguruan ohartarazteko. «Tolosaldeko energia berriztagarrien inguruko datu baxuez ohartarazi eta biomasan eduki dezakegun alternatiba azaleratu nahi dugu», esan du. Izan ere, bertako baliabide berriztagarriak aztertzea eta balioan jartzea helburu nagusi duen Piztu Tolosaldea energia plana diseinatu zuen agentziak, eta horren barruan eskualdeko biomasa ere neurtu zuten Hazi Fundazioaren laguntzarekin. Biomasa alor energetikoan eta ekonomikoan jokatu dezakeen papera antzemateko eta eragile guztien artean biomasaren estrategiaren bide orria zehazteko helburuarekin egin zuten. Eta ondorioztatu zuten, eskualdean erabiltzen den energia iturrietatik %0,3 besterik ez duela betetzen biomasa, energia berriztagarrien %17 suposatzen duena. «Eta gehiago erabili daiteke, eskualdeko baso publikoek eraikin publikoetan kontsumitzen den biomasa emateko ahalmena dute eta», esan du.

Behin ikerketa eginda 2018an zehar egurraren katean aritzen diren agenteekin egindako elkar- ritzketa sortak egin dituzte eta besteak beste, ondorioztatu dute, eskaera handitzeko udalek paper dinamizatzailea behar dutela izan. Bideoa ataria.eus-en ikusi daiteke.



PROBA EZAZU KORTEKO
TURROI
TRADIZIONALA
RAFA GORROTXATEGIEN
ERARA EGINDA

943 89 03 06 | www.rafagorrotxategi.eus



Tolosan, salgai:
Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Rafa Gorrotxategi
Denda:
Solana Kalea, 1

Tolosako Gabirondo zapata dendak 140 bete zituen pasa den azaroaren 2an. Pedro Gabirondok eta Manuela Aranburuk ireki zuten 1878an, sagardotegia izandako lokal bat ikustera joan zirenean.

Gabirondo, 140 urte zabalik

Joxemi Saizar

Korreo kaleko mutur batek hasi eta beste muturreraino, denda bakoitzak zein familiatakoa zen buruz zekien jende askok garai batean. Orain ariketa zailagoa da hori, izan ere denda asko aldatu egin dira azken urte hauetan. Gorabehera asko ezagutu ditu merkataritzak eta zaila da negozio bat irekita eta martxan edukitzea.

Horregatik meritu handiagoa du denda batek 140 urte betetzea zabalik, jendeari bere zerbitzua eskaintzen. Azaroaren 2an izan zuen urteurren hori Tolosako Korreo kaleko Gabirondo zapata dendak, 1878an ireki baitzen. Eta Gabirondo familia pozik ageri da nork jarraituko duen ziurtatuta dutelako. Tolosako denda zaharrena da eta kanpoan ere gutxi izango dira urte horietara iritsi direnak.

1978KO KORPUS EGUNA

Denda honen historia luzea Ibarako Pedro Gabirondok eta Aizarnazabalgo Manuela Aranburuk hasi zuten 1878ko Korpus egunean, sagardotegia izandako lokal bat ikustera joan zirenean. Felix Antonio Soroeta nagusiarekin tratu batera iritsi eta denda prestatzeko lanak egin ondoren, 1878ko azaroaren 2an ireki zizkieten zapata dendako atea erosleei lehen aldiz. Denda, pisua eta ganbararen alokairuaren fakturak gordeta dituzte eta data hori hartzen dute sorreratzat. Hala ere, bi agiri zaharrago ere badituzte, 1874koak, San Krispin eta San Krispiniano zapatarien gremioko akta liburuan kofrade gisa agertzen dena eta Antonio Elozegi txapel fabrikako nagusiari egindako faktura hainbat erosketa eta konponketagatik.

Denda honetako bigarren belaunaldia sortzaileen bi semeek osatzen dute, Gervasio eta Nazario, horiek izan baitziren fa-



Maria Isabel eta Maria Izaskun Gabirondok apirilean utziko dute lana, baina badute negozioarekin jarraituko duen norbait. JOSEBA URRETABIZKAIA

miliako negozioa jarraitu zutenak izan zituzten zazpi seme-alaben artean. Tolosan jarri aurretik Zestoan eta Leitzan aritu ziren lanbide berean.

Gervasioren semeak, Pedro, eta Antonia Garmendia bere emazteak hartu zien txanda, hirugarren belaunaldia osatuz. Hauen bost seme-alabetatik denek esku bat bota dute txikitatik, baina bik, Maria Isabel eta Maria Izaskun, jarraitzen dute negozioan erabat murgilduta gaztetatik, laugarren belaunaldia izanik.

ALDAKETAK

140 urtetan asko aldatu da dena: gizartea, denda, zapatak, lanbidea... Dendak Errementari kaletik beste sarrera zeukan. Sukaldea ere bazeukan eta larunbatetan eta astelehenetan bertan bazkaltzen zuten denek, denda itxi gabe, janari eta gaudu azoka horietara jende asko etortzen zelako. Bizimodu osoa bertan egiten omen zuten. Garai batean zapatak neurrira egiten ziren eta konponketa lan asko egiten ziren, zapatak garestiak eta kalitatekoak izaten zirelako, asko irauteko eginak. Gaur egun errazago aldatzen

dira eta oinetako pare ugari izaten dira etxeetan. Eskuz egindako artisauek lan horiek egiteko langile asko izaten zituzten Gabirondon, hamabi izatera iritsiz, eta greba egitera iritsi zirela kontatzen dute familian. Haietako batzuk bere kontura jarri ziren lanean.

EMAKUMEEKIN, BATEZ ERE

Zapatak egitearena eta konpontzearena aspaldi bukatu zen eta azken hamarkadetan salmentan bakarrik aritu dira Gabirondo bi ahizpak. Oinetakoen estiloa, kolorea eta materiala ere asko aldatu da. Aspaldiko oinetakoak ber-

dinak izaten ziren bi oinetarako, eskuina eta ezkerre bereizi gabe. Gaur egun gehienbat emakumeen zapatekin egiten dute lan, nahiz eta gizonezkoentzat ere zerbait izan. Aspaldi utzi zituzten haurren oinetakoak, lanerako konplikatukoak direlako. Kalerako ere kirol oinetakoak asko ugaritu direla aitortzen dute bi dendariak. Espainiako toki desberdinetatik ekartzen zituzten lehen bere salgaiak eta orain Europako hainbat herrialdetatik ere ekartzen dituzte.

Garai zailak bizi ditu merkataritzak. Batez ere, Leitzarango autobien eraikuntzarekin Nafa-

roako bezeroen galera nabaritu zuten Gabirondon. Gaur egun konpetentzia izugarria dute denda txikiek Interneteko salmentarekin eta zentro komertzial handiekin. Hala ere, Tolosak merkatal gune garrantzitsua izaten jarraitzen du, bezero fidelak dituzte Gabirondon eta saltzaileak gustura daude salmentekin. Maria Isabel eta Maria Izaskun Gabirondok lana apirilean utziko dute, baina negozioarekin nork jarraituko duen aurkitu dute, gremioaren barruan gainera, eta zapata-dendak zabalik jarraituko du izena mantenduz. 140 urteren ondoren, katea ez da eten.



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12 · 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Natura eta artea uztartuz, jardunaldiak egingo dituzte Alkizan

Hernio-Gazume kontserbazio bereziko eremuak dituen aberastasunak ezagutzera emateko helburuz antolatu dituzte saioak, Fagus Alkiza interpretazio zentroan

Jon Miranda Alkiza

Hernio-Gazumeko altxorak eza-
gutzeko guneak, bost urte bete
ditu. Urteurrenaren harira, hain-
bat ekitaldi antolatu dira urtean
zehar eta Natura&Artea jardunal-
diak egingo dituzte, orain, urtea
amaitzeko.

Gipuzkoako kultura maparen
barruan kokatu den egitasmo ar-
tistiko berria abiatu dute aurten
Alkizan: Sormenaren Kabia, artis-
tentzako hausnarketarako, sormen-
erako eta lanerako ekimena. Na-
tura&Artea jardunaldietan
Sormenaren Kabiaren lehen eki-
taldia nola gauzatu den eta artis-
tek esperientzia nola bizi izan du-
ten ezagutzera eman nahi dute.
Unai Sorrairain bideogileak gertu-
tik jarraitu du Kimia Kamvari eta
Txiki Keixeta artisten lana eta
ikus-entzunezko batean bildu du.
Etzi eskainiko dute lehen aldiz.

Bide batez, Txiki Keixetak bere
lanak jarriko ditu ikusgai Inazio
Urruzola txakolindegian eta inau-
gurazio ekitaldia bihar egingo
dute, 19:30ean.

NATURA&ARTEA

Abenduaren 17tik 28ra

Fagus Alkizan. *Himalaia: natura, gi-
zakia eta kultura* argazki erakuske-
ta Arri Zugarramurdi argazkilariaren
eskutik.

Abenduak 19, gaur

18:30. *Alkiza&Hernio. 150 milioi ur-
teko kontuak* hitzaldia emango du
Koldo Nuñez geologoak.

Abenduak 20, bihar

18:30. *Baso-politika berria* Gipuz-
koarako hitzaldia emango dute Iñaki
Aizpuru eta Aitziber Sarobe biolo-
goek interpretazio zentroan.

Abenduak 21, ostirala

18:00. Unai Sorrairain bideogileak
osatutako *Sormenaren Kabia 2018*
ikus-entzunezkoaren estreinaldia
Fagus Alkiza interpretazio zentroan.

Abenduak 22, larunbata

18:30. Herriko musika ikasleen Ga-
bonetako emanaldi berezia, Shrabani
Aranzabe musika irakasleak gida-
tua.



Arri Zugarramurdi argazkilariaren lanak ikusgai izango dira Fagus Alkiza interpretazio zentroan, hilaren 28ra arte. ATARIA



«Hernio eta
Alkizako gunea
interesagarriagoa
da geologikoki,
flyscha baino»

**KOLDO NUÑEZ
GEOLOGOA**

J.M. Alkiza

Argazki eta mapez lagunduta
emango du hitzaldia Koldo
Nuñezek (Donostia, 1959); «de-

nontzako modukoa» izango dela
aipatu du, «jende guztiak goza-
tzeko modukoa».

**Noiz izan zenuen zuk lehen al-
diz Hernio Gazume eremu-
aren berri?**

Niretzat izugarrizko sorpresa
izan da. Ezagutzen nuen inguru-
nea, baina hitzaldia prestatzen
hasi naizenean ikusi dut altxor
pila bat dagoela. Ugaritasun
handia dago Alkiza inguruan.

**'150 milioi urteko kontuak'
izenburua jarri diozu hitzal-
diari. Zergatik?**

Alkiza inguruan badaude 230
milioi urte dituzten harriak, eta
hortik gora, 80 milioi urteko ha-
rriak topatu ditzakegu Hernioko
gailurrean. Horrek esan nahi du,
Alkizatik Hernioko puntara, 150
milioi urteko ibilbidea dagoela;
150 milioi urteko historia dago
harrietan. Nik harri horietan
dauden istorio horiek kontatuko
ditut.

**Kostaldean ibili izan zara la-
nean geologo gisa. Zumaia-
ko Flyschak sona handia du. Al-**

**deragarria da Hernio Gazume
eremuarekin?**

Niretzat askoz inportanteagoa
da Hernio eta Alkiza inguruko
geologia flyscha baino. Izen han-
dia eman diogu Zumaia-koari,
oso polita ikusten delako, baina
egiatan ez du horrenbesteko ga-
rrantzirik. Toki askotan agertzen
dira gisa horretakoak. Askoz ere
barietate eta altxor gehiago dau-
de Hernio inguruan, kostan bai-
no. Aitortu behar da, ordea, kos-
tan errazago ikusten direla altxor
horiek.

**Bitxikeriak ere topatzen dira
Hernio Gazume eremuan.**

Bai, egia da, munduan bakarra
den ilargi esnea deituriko forma-
zio geologikoa agertzen da ber-
tan. Bitxikeria da eta interesga-
rria, baina ikuspegi geologikotik
ez du hainbesteko garrantzirik.
Berdina gertatzen da Alkizako
kuartzoarekin. Museo askotan
aurki daitezke, politak direlako,
oso gardenak direlako eta ondo
eratuta daudelako. Baina bildu-
mazaleen piezak dira horiek.

Hilberriak eta urteurrenak



Peli Eskizabel Izagirre

*Hamaika bazkari
hamaika solas
hamaika kantu saio
Adiorik ez*

BETIKO LAGUNAK

ORDIZIA 2018ko abenduaren 19an

ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan
16:00ak arte hartzen ditugu

Argazki tailerra, aurtengo berritasuna

Erredakzioa Amezketari

Eguberriei begira egitarau zabal prestatu dute Amezketan, Gaztelekuak zein Akelok guraso elkarteak. Aurtengo berritasuna argazki tailerra izango da, 16 eta 18 urte bitartekoei zuzendua bereziki. Tailerra bi egunetan zehar egingo da; lehena abenduaren 29an eta hurrengoa urtarrilaren 5ean, eta bakoitza hiru ordukoa izango da. Tailerra guztiz dohainik izango da eta izena eman nahi duenak abenduaren

21a arte du aukera, 688 71 16 75 telefonoz zenbakira deituz edo amezketa@gmail.com helbidera idatziz.

Adin tarte horrentzako antolatutako lehen jarduerak argazki tailerrarena. Aurrera begira beste batzuk prestatzeko asmoa dute Gaztelekutik. Bestalde, Eguberrietan, ohiko abenduaren 24ko eta urtarrilaren 5eko ekitaldiez gain, haurrentzako zein nerabeentzako hainbat jarduerak prestatu dituzte, ostiral honetatik hasita.

EGITARAUA

Abenduak 21, ostirala

19:00–22:00. Filma eta afari merienda Gaztelekuan, nerabeentzat. Afaria Gaztelekuak jarriko du.

Abenduak 24, astelehena

09:30. Zumadi eskolako haurrak Ugartetik aterako dira Gabon kantak abesteko. 12:00etan, herriaren sarreran Olentzerorekin topo egingo dute haurrek. 13:30ean, haurrentzako bazkaria Zazpi Iturri elkartean.

Abenduak 26, asteazkena

09:45–14:15. Olaberriako Kartingera irteera, nerabeentzat. Trenetango dira eta garraioa Gaztelekuak jarriko du. Prezioa, 15 euro.

Abenduak 27, osteguna

10:00–12:00. Ipuin kontalaria, haurrentzat, kultur etxeko aretoan. Hamaiketako egingo da.

Abenduak 28, ostirala

10:00–13:00. Frontenis txapelketa Larrunarrin, nerabeentzat. Norberak erraketa eta pilota eramango ditu.

Abenduak 29, larunbata

10:00–13:00. Argazki tailerraren lehen saioa, haur eskola zaharrean. 16 urtetik gorakoentzat.

Urtarrilak 3, osteguna

16:30–18:30. Sukaldaritza tailerra, haurrentzat, haur eskola zaharreko gaztelekuan.

Urtarrilak 4, ostirala

08:30–16:30. Iruña Saltingera irteera, nerabeentzat. Prezioa, 15 euro. Garraioak Gaztelekuak ordainduko du. Bakoitzak bere hamaiketako, bazkaria eta, aukeran, merienda.
10:00–13:00 eta 16:30–18:30. Puzgarriak, haurrentzat, beheko frontoian.

Urtarrilak 5, larunbata

10:00–13:00. Argazki tailerraren bigarren saioa, haur eskola zaharrean. 16 urtetik gorakoentzat.
18:00. Errege magoen desfilea elizatik abiatuta. Larrunarri frontoian hartuko dituzte haurrak. Ondoren, txokolate jatea.

Ur saneamenduan eta hornikuntzan, inbertsioak

Erredakzioa

Amezketari/Bidania-Goiatz

Jose Ignacio Asensiok, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatuak, eta Olatz Peonek, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko lehendakariak, lankidetzaren sinatu dute Gipuzkoako hamaika udalerritan 10 milioi euroko azpiegitura hidraulikoetako obren finantzazioa batera

gauzatzeko, tartean Amezketan eta Bidania-Goiatzen. Inbertsio sorta berri hori, 2018-2022 aldian gauzatuko da. Foru aldundiak bere gain hartu du 5.000.000 euroko gastua, hau da, hitzarmen honen xede den azpiegitura hidraulikoaren inbertsio osoaren %50a. Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du eta beste lau urtez luzatu daiteke.

Bidania-Goiazko saneamenduari dagokionez, proiektuak

hartzen ditu bi herrigune horien isuriak jasotzen dituzten kolektorea, baita hondakin uren araztegi txiki bat ere. Inbertsioa 2.250.000 eurokoa izango da.

Amezketari dagokionez, saneamenduaren lehenengo fasea hitzartu da. Fase horretan gauzatu dira Amezketako herrigunearen eta Ugarte auzoaren artean dauden isuriak jasotzeko obrak. Inbertsioa 2.000.000 eurokoa izango da.

Eskaintza zabala dute Alegian, Eguberrietarako

Erredakzioa Alegia

Alegiako Kultura Batzordeak prestatu duen Gabonetarako kultur egitaraua gaztaina jatearekin hasi zen igandean. Urtarri-

laren 5a bitartean askotariko ekintza ugari antolatu ditu adinguztietako herritarrei begira. Aurtengo berrikuntzetako bat abenduaren 26an, 27an eta 28an egingo den zirku tailerra izango

da. 6 eta 18 urte bitarteko gazte txoe Adunako Asvinenea zentroan zirkuko diziplina ezberdinak ezagutzeko aukera dute. Izena eman nahi dutenek bihar arte dute aukera kultur etxean.

EGITARAUA

Abenduak 19, gaur

18:30. Loatzo musika eskolako emanaldia Elizpe zinema aretoan.

Abenduak 23, igandea

18:30. Txintxarri txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua, elizan.

Abenduak 24, astelehena

11:00. San Juan eskolako ikasleak abesten kaleetan zehar.
16:30. Txintxarri Abesbatza kantari ibiliko da kaleetan zehar.
18:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, eskola aurretik hasita.

Abenduak 25, asteartea

11:15. Txintxarri Abesbatzak Egube-

rri eguneko meza nagusian abestuko du.

Abenduak 26, 27 eta 28

6-18 urte bitartekoentzat zirku tailerra Asvinenean (Aduna).

Abenduak 26 eta 27

Gabonetako pilota topaketen sailkapenak, Elorri pilotalekuan.

Abenduak 29, larunbata

16:00. Gabonetako pilota topaketen finalak Elorri pilotalekuan.

Abenduak 31, astelehena

16:00. IX. San Silvestre Krosa plaza.

19:00. Euskal preso eta iheslari zein senideen eskubideen aldelelopean manifestazioa, plazatik.

Urtarrilak 1, asteartea

11:15. Txintxarri Abesbatza kantuan meza nagusian.
12:15. Udal hautetsiek mandarinak eta intxaurrak banatuko dituzte plaza.

Urtarrilak 2 eta 3

Goizetan. Multikirola campusa. Iturri Zahar guraso elkarteak antolatuta.

Urtarrilak 5, larunbata

18:30. Errege magoen desfilea, Orendaingo bidetik abiatuta.



1 BILBOKO ARTE EDERRETAKO

Bi lagunentzako bina sarrera

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO

www.museobilbao.com/eu/BILBO

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

harpidedun izateak badu saria zozketa

2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera



Anoeta pasealekua, 24 – DONOSTIA
Tel.: 943-46 44 04 www.eltxuri.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 SEGORE ETXE BERRI JATETXEA-LANDAETXEA

Bi lagunentzako otordua

www.segore.com
Mota guztietako ospakizunetarako; ezkontzak, familia bazkariak...
943-58 09 76 – 610 460 751
Santa Maria auzoa – ALBIZTURA



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako asteartean eta asteazken goizean. Saridunak ostegunean argitaratuko ditugu.



ASTEARTEA, 2018KO ABENDUAK 18
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **902 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 19

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Gabonetako apaingarrien tailerra egingo dute birziklapena bultzatzeko asmoz, familia osoarentzat, Plazida Otaño liburutegian, 17:30ean.
Alegia. Loatzoren Eguberritako emanaldia, Elizpe zinean, 18:30ean.
Aduna. Loatzoren Eguberritako emanaldia, elizan, 18:30ean.
Alkiza. Alkiza & Hernio. 150 milioi urteko kontuak hitzaldia, Fagus Alkizan, 18:30ean.
Abaltzisketa. Aralarri buruzko hitzaldia, 20:00etan, Goibegi eraikinean, Joxean Mujika arkeologoarekin.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Oskar Tenareki artearen txokoa, Ainhoa Mendiluze Kale Kantotik eta Tolosaldea Garatzeneko Migrazio sailaren tarteak.
11:00-12:00. Eutsi goiari. Kirolak.
12:00-13:00. Entzuteko jaioak.
15:00. Playback Ataria. Adrianna Gaultier Djaren musika saioa.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00. (H)ari naizela. Imanol Artolak, Felixek, gidatutako bertso saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde tik.
16:30. Ur eta lur.
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosalde tik.
22:00. Amaia Dj.
22:30. Onein.
23:30. Gaurkoan Tolosalde tik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. Telefono zenbakia: 943 67 06 48.
Gaukoa. Rosalia Morant Barber. Zabalaretara Lorategiak, 1. Telefono zenbakia: 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Asteazkenean eguraldia zertxobait nahastuko da. Goietan aire hotzagoa sartuko zaigu eta horrekin zaparrada batzuk sortuko dira. Zaparradak tartekatuak izango dira eta gehienbat eguerdian edo arratsaldeko lehen orduetan emango dira. Zaparrada hauek tarteka mardulak izango dira. Gau partean giroa lasaitu egingo da. Mende bal-hego/mende baldeko haizea ibiliko da. Tenperaturak zertxobait jaitsi eta 10-12 gradutan errendituko dira.



Bihar. Eguraldiak hobera egingo du berriz ere. Hego haizearen eraginpean jarraituko dugu eta horrekin hotzik ez dugu pasako, non eguneko erdiko orduetan tenperaturak zertxobait igo eta 12-14 gradu bitartean kokatuko zaizkigun. Zeruari dagokionez, hodei batzuk ikusiko ditugu, baina ez dute euririk utziko eta giro atsegina izango dugu.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Anabel!

Presoak etxera, ya!!!

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

www.ataria.eus · 107.6 fm



zozketak

Atarikideentzat lau sarrera pare ditugu



Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Musua'

Abenduak 22, Ordiziako Majori kiroldengan, 16:30ean edo 19:00etan.

Urruñako ikastolak eta Ziburuko kolegioak, Goierriko ikastolen laguntzarekin antolatua, Urruñako ikastola eta Ziburuko Piarres Larzabal kolegioaren alde.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 12:30ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**



2019ko mahai egutegiak eskuragarri.

zatoz zurearen bila

San Esteban, 20 Tolosa 20400